

Juxek Rock Jaialdiaren historia eta bilakaera argazki bidez azaldu du Bastero Kulturgunean

- Ekainaren 11tik uztailaren 3ra bitartean ikusi ahal izango da *Andoaingo Rock Jaialdia irudit*an lana, hainbat ediziotan bildutako argazki-materialarekin.
- Bisita gidatu bikoitza antolatuko da ekainaren 17an, ostegunean. Parte hartzeko ezinbestekoa izango da alde zuzenetik izena ematea.

Gaur ireki ditu ateak **J. A. Areta Goñiren "Juxe"** argazki erakusketak, Rock jaialdiaren historia erretratatu bidez jasotzen duena. Bere argazki kameraren atzean, hamarkada gainditzen duen jaialdiaren ibilbidearen lekuko eta konplize izan da. Jaialdiaren espiritua erakustea du helburu erakusketak. Juxe etenik gabe egon da Nafarroa Plazako musika-ekitaldian hamabi edizioetako bakoitzean eta **XIII. Andoaingo Rock Jaialdian** ere gure artean izango da, Coronavirusera egokitutako formatuan, Ondarretako patioan eta Bastero Kulturguneko agertokietan burutuko baita.

Erakusketaren irekiera ekitaldia egin da, eta Juxe argazkilaria bertan izan da. Bastero Kulturgunean izan dira udal ordezkariak eta Rock jaialdiko hainbat aurpegi ezagun, azken hauek ekainaren 19ko hitzorduaren xehetasunak ixten ari direlarik. Erakusketa ikusteko ordutegia asteleheneetik ostiralera 18:30etik 20:00etara izango da. Larunbatetan goizez 10:30etik 13:30era eta arratsaldean 18:30etik 20:30era irekiko da. Igande eta astearteetan, aretoa itxita egongo da.

Mari Jose Izagirre alkateordeak azaldu duenez, Basteron ikusgai dagoen argazki-proposamenean "hainbat irudi daude, egunetz gain gauez ateratakoak, banden zuzeneko emanaldien argazkiak, agertokiaren atzean dagoenaren argazkiak edo musikaz gozatzen ari den publikoaren argazkiak". Guztira, 60 irudi inguru, jaialdiaren historia eta bilakaera laburbiltzen dituztenak.

Izagirrek jakinarazi duenez, datorren ostegunean, ekainak 17, bisita gidatuen saio bikoitza antolatu dute, artistak berak gidatuta. Lehen saioa 18:00etan izango da euskaraz eta bigarrena 19:00etan gaztelaniaz. Bisita gidatuek 15 lagunentzako aforo-muga izango dute eta parte hartzeko **basteroataria@andoain.eus** helbide elektronikoan eta **943.303.540** telefonoan eman beharko da izena, Bastero Kulturguneko bulegoaren ordutegian.

Amaitzeko, gogoratzen da Andoaingo Rock Jaialdia ekainaren 19an, larunbatean, itzuliko dela XIII. edizioarekin, eguneko formatuarekin eta bi eszenatokirekin, bi kokalekutan banatuta: Ondarreta ikastetxearen patioa eta Bastero Kulturgunea. Audience (12:30, Ondarreta), Rüdiger (15:30, Ondarreta), Angel Kaplan eta banda (17:45, Bastero), Inoren Ero Ni (19:00, Ondarreta) eta Belako (21:00, Bastero) taldeek osatzen dute kartela. Gonbidapenak ordu gutxitan agortu ziren.

Antolakuntzak gonbidapen horiek **arduraz erabiltzeko deia** egiten du: kontzertuaren esparruan garaiz sartzeko aholkua egiten zaio publikoari, behar besteko aurrerapenarekin esertzeko, pixkanaka. Norbaitek bere sarreraz ezingo badu gozatu, Bastero Kulturgunera itzultzeko eskatzen da. Kontzertuaren hasieran bete ez diren eserlekuak libre geratzen badira, pertsona berriek bete ahal izatea aurreikusi du antolakuntzak, edukiera osoa bete ahal izatea eta aulkia hutsik ez geratzea sustatuz.

Andoain, 11 de junio de 2021.

Juxe expone en Bastero la historia y la evolución del festival de Rock en fotografías

- **La muestra *El festival de Rock de Andoain en imágenes* con el material fotográfico recopilado en diferentes ediciones se podrá visitar entre el 11 de junio y 3 de julio.**
- **Se organizará doble visita guiada el jueves 17 de junio. Para participar en las mismas será imprescindible inscribirse con antelación.**

Hoy ha abierto las puertas la exposición fotográfica que muestra la historia del festival a través de las instantáneas de **J. A. Areta Goñi "Juxe"**. Testigo y cómplice detrás de su cámara del festival y su trayectoria que supera ya la década. La muestra tiene como objetivo trasladar y mostrar el espíritu del festival. Juxe ha estado presente de forma ininterrumpida en el evento musical de Plaza Nafarroa en cada una de las doce ediciones y esta edición del **XIII. Andoaingo Rock Jaialdia** adaptada al coronavirus también estará en los escenarios del Patio de Ondarreta y Bastero Kulturgunea.

Se ha realizado un acto de apertura, en el que el propio fotógrafo Juxe ha estado presente. En ella han participado representantes municipales, y diferentes caras visibles del festival de Rock, que ultiman los detalles de la cita del 19 de junio. El horario de visita de la exposición de lunes a viernes será de 18:30 horas a 20:00 horas. Los sábados se abrirá por las mañanas de 10:30 h. a 13:30 h. y por la tarde de 18:30 h. a 20:30 h. Los domingos y los martes, la sala permanecerá cerrada.

Según ha explicado la teniente alcalde Mari Jose Izagirre, en la propuesta fotográfica que se expone en Bastero "hay variedad de imágenes, sacadas tanto de día como de noche, fotos de las actuaciones en directo de las bandas, fotos de lo que hay detrás del escenario o fotos del público disfrutando de la música". En total, aproximadamente sesenta imágenes que resumen la historia y la evolución del festival.

Izagirre ha informado de que el próximo jueves, 17 de junio, se ha organizado una doble sesión de visitas guiadas, que estarán lideradas por el propio artista. La primera sesión será a las 18:00 horas en euskara y la segunda, a las 19:00 horas en castellano. Las visitas guiadas tendrán un aforo limitado de 15 personas y para participar en ellas habrá que inscribirse en la dirección de correo electrónico **basteroataria@andoain.eus** y en el teléfono **943.303.540** en horario de oficinas del centro cultural Bastero.

Para finalizar, se recuerda que el Festival de Rock de Andoain regresa con su XIII. edición el próximo sábado 19 de junio, con formato de día y con dos escenarios repartidos en sendas localizaciones: el patio del colegio Ondarreta y Bastero Kulturgunea. Audiencia (12:30h Ondarreta), Rüdiger (15:30h Ondarreta), Ángel Kaplan y su banda (17:45h Bastero), Inoren Ero Ni (19:00h Ondarreta) y Belako (21:00h Bastero) completan el cartel. Las invitaciones se agotaron en cuestión de horas.

Desde la organización se hace llamamiento a que **se realice un uso responsable** de las mismas: se aconseja al público que ingrese en el recinto del concierto y tome asiento con suficiente antelación, de forma progresiva. Si alguien no va a poder disfrutar de su entrada, se solicita que se devuelva en Bastero Kulturgunea. La organización tiene previsto que los asientos que no hayan sido ocupados para la hora del inicio del concierto, queden liberados y puedan ser ocupados por nuevas personas, fomentando que se pueda completar el aforo completo y no queden sillas vacías.

Andoain, 11 de junio de 2021.